

Bizarrain Kultura-elkartea

ALTZAKO IPUIN ETA BERTSOPAPER LEHIAKETAK

Bizarrain Kultura-elkartek 14-16 urte bitarteko gazteentzako ipuin laburren lehiaketa antolatu du, bigarren urtez. Lehiaketaren helburua da euskaraz idazteko zaletasuna bultzatzea Altzako gazteen artean.

Aurtengo lehiaketaren irabazlea Sara Gonzalez de Alaiza izan da. Azpimarratzekoa da iaz ere berak irabazi zuela lehiaketa. "Pultsera txipaduna" izeneko ipuinean, 2015eko Altzan euskarak biziko duen balizko egoera eta bere irtenbidea irudikatzen ditu.

Bigarren sariari dagokionez, bi saridun izan ditugu: Andrea Martinez de Arespe ("Romeo eta Julieta") eta Irati del Pozo ("Nire amona"). Aipatzekoa da ere Irati iaz ere bigarren izan zela lehiaketan. Hiru gazteak Altzako Institutuko ikasleak dira.

Ipuin onenaren egileak ordenagailu eramangarri txiki bat (netbook) jaso du, eta bigarren saria eskuratu dutenek euskarazko kultura-produktuak Altzan erosteko txartela jaso dute.



Argazkian, ezker eskuin: Luis Mari Ralla (Bizarrain), Sara Gonzalez de Alaiza (Irabazlea, Ipuina: "Pultsera txipaduna"), Andrea Martinez de Arespe eta Irati del Pozo (bigarren sarituak) eta Victor Fernandez (Altzako Institutua).

Bestetik, maiatzean III. Bertsopaper Lehiaketa amaitu da. Guztira, lau lan jaso ditu elkarteak eta lehiaketaren irabazleak erabaki ditu. Lehiaketako epaimahaikideak Joan Mari Irigoien idazlea eta Unai Elizasu bertso gai-jartzailea izan dira, Bizarrain elkarteko kideekin batera.

Bertso paper lehiaketaren irabazlea Iñigo Legorburu Arregi izan da, "LAU HAI-ZETARA" ESKULTURA NAIZ lanari esker. Nabarmentzekoa da saria hirugarren aldiz jarraian irabazi duela errenteriarrek.

Altzako onenaren saria, berriz, Xanti Zampirain Elizaldek irabazi du, BIZIA ETA BIDEA bertso sortarekin. Duela bi urte ere irabazi zuen sari hori, exequo aldi hartan.

Sari-banaketa maiatzaren 7an egin zen Altzako XI. Bertso Asteko bertso afarian, Altzatarra elkartean.

LEHENENGO SARIA: “PULTSERA TXIPADUNAK”

Sara Gonzalez de Alaiza

2015ean Espainia osoa krisia zela kausa, herrialde atzeratua bihurtu zen. Hori ez zuen inork espero, krisi-ekonomikoa eta gobernu mota horrek edozer ekar zezakeela ziotenek akaso. Baina hori nire historiaren kokapena baino ez da. Markel deitzen naiz, nire gurasoak euskaldunak dira eta. garai hartan Estatu Batuetan bizi nintzen eta DBHa ikasten nenbilen. Estatu Batuetan, betidanik izan ditugu aurre-rapen handiagoak: Telebista eramangarriak, mp9, pultsera txipadunak, robot laguntzaileak...

Ekainako arratsalde batean, nekatuta iritsi nintzen etxera. Askaria hartzeko gurarekin sartu nintzen sukaldera, bat-batean nire aitak berri ona bota zidanean. Espainiara joango ginen, Euskal Herrira. Nire aitak lan egiten zuen multinazionalen aldaketa batzuk egingo zituztela bide, herrialde azpigaratu batera bidaliko zituzten zenbait langile, haien artean nire aita. Arrazoiak? Betikoak, herrialde azpigaratuetan langileak merkeagoak direla. Nire aita ezin baino pozago zegoen. Egia esan familia osoa geneukan Euskal Herrian eta nik aiton-amonak eta izeba pare bat baino ez nituen ezagutzen. Informazio gehiago eskatu nion nire aitari eta hark Donostiako auzo batera bizitzera lekualdatuko ginela esan zidan. Segituan, poltsikoko ordenagailua atera nuen patrikatik eta interneten Donostiako argazki batzuk aurkitu nituen. Ederra zirudien. Eskerrak euskara txikitatik nekien! horrek hizkuntza berria ikasteko lan handia kentzen zidan.

Hori jakinda, udara osoa Donostia nolakoa izango ote zen amesten pasatu nuen eta irailaren batean ama, aita, arreba eta neu, Bilboko aireportura iritsi ginen. DBHko 4. kurtsoko lagun berriak ezagutzeko irrikitan nengoen. Pena eman zidan noski Estatu Batuetan izandako lagunak agurtzeak baina baikorra izan behar nuela pentsatu eta nire herria nolakoa zen jakiteko gogoia piztu zitzaidan. Altzara iritsi ginen. Auzo lasaia zela zirudien. Itsasotik pixkat urrun zegoen nire gusturako, baina gauzak ez ziren egongo nire gusturako eginak, jakina. Gehien txunditu ninduen goizetan txoriak kantari entzutea izan zen eta gauetan, zeruko izar distiratsuak ikustea, Estatu Batuetan hainbeste etxeorraz egonda ez baita ezta Ilargia ere ikusten.

Klaseko lehen eguna heldu zen eta nire urduritasuna urrutitik antzematen zen. Aurkezpen klasea baino ez zen, ordea. Arrebarekin egin nuen instituturako bidea. Egokitutako klasera sartzean eta lagun berriekin hitz egiten saiatzean, ez nuen hitzik ere ulertzen. Hura bai egoera! Hasieran txantxa bat zela pentsatu nuen baina geroago konturatu nintzen gaztelaniaz mintzatzen zirela eta nik hortaz piperrik ere ez nekien. Estatu Batuetan ingelesa eta etxeokokin euskara baino ez nuen ika-

si. Ez al nengoen ba Euskal Herrian? Non zegoen jende euskalduna? Gero eta urduriago nengoen. Irakaslea gelan sartu zen. Bere burua aurkeztu zuen, euskaraz! Bat-bateko lasaitasuna sentitu nuen barnean. Leire zuen izena, gure tutorea izango zen eta biologia irakatsiko zigun. Ondoren, begiratu bat eman zion klase osoari eta bere begi ilunek nire aurpegian geratu ziren. Niri begira jarraitu zuen:

-Iaz denei eman nizuen klasea eta gogoan zaituztet. Hara! Zu berria zara, ezta? Begirada guztiak niregan finkatu ziren.

-Bai, nire izena Markel da eta Estatu Batuetatik etorri naiz.

-Ba oso ondo hitz egiten duzu euskaraz!

-Bai, euskalduna naiz.

-Ze ondo! Agian hemengo batzuei irakatsi beharko diezu hizkuntza, ze larri-larri dabilta.

Eta barrez hasi zen. Niri horrek ez zidan grazia pitxik egiten. Aurkezpena azkar bukatu zen. Kalera atera ginen eta klaseko neska bat hizketan hasi zen nirekin, euskaraz estreinakoz:

-Beraz, zuk ez dakizu castellano?

-Ba, ez. Ez dut inoiz ikasi.

-Ni Eneritz naiz.

-Pozten naiz zu ezagutzeak, Eneritz.

Jatorra zela iruditu zitzaidan. Gutxienez ni ezagutu nahian hurbildu zitzaidan bakarra izan zen.

-Markel, tienes que saber que, hemen, institutuan, entre amigos ez da inoiz euskara erabiltzen eta arraroa bezala hartuko zaituzte.

-Eta zer dela eta lagun artean ez duzue euskara erabiltzen?

Neskatxak bekainak goratu zituen.

-Ba, pues, euskaldunak ez garelako, ez dugu ohiturarik eta igual lotsa ematen digu hitz egiteak ze, gaizki hitz egiten dugu!

-Eta non daude ba euskaldunak?

-Horiek? Herrietan, non bestela?

-Eta hemen, auzoan?

Neskatxa pentsakor geratu zen une batean.

-Bai, badaude gutxi batzuk! Begira, hemen bizi naiz, eta zu?

-Ni bi kale harantzago bizi naiz.

-Si quieres, klaseko batzuekin joan zaitezke institutura. Goizero, ondoko parkean geratzen gara txirrina jo baino ordu laurden bat lehenago.

-Primeran!

Eneritz agurtu eta etxera iritsi nintzen. Orduan, arreba jasotzea ahaztu zitzaidala ohartu nintzen. Horrek ez ninduen asko kezkatu, izan ere, etxera itzultzeko bidea bazekien. Gogoetak egiten hasi nintzen. Ez nuen espero horrelako giro erdalduna. Hala ere, neska-mutil jatorrak zirela nabaria zen. Baina ez nuen ulertzen zergatik nik euskara hitz egiten nienean beraiek gaztelaniaz erantzuten zidaten. Orduan, ideia bat izan nuen, aurrerago erabili ahalko nukeena. Izan ere, hemen oso atzeratuak zeuden teknologia kontuan. Klaseko arbela klarionezkoa zen oraindik! Nire gogoetan murgilduta nengoen, arreba etxean sartu zenean. Triste aurpegia zuen. Zer moduz joan zitzaion galdetu nion. Negar zotinka hasi zen. Bere esanetan, mutiko batek zerbait esan zion eta berak ez ziola ulertzen esatean, mutikoak euskaldunak hemendik joateko erantzun eta zenbait hitz itsusi bota zizkion. Ongi ulertzen nuen arreba gaixoa eta nire ideia pentsatu baino lehenago jarri beharko nukeela martxan erabaki nuen.

Egunak joan eta egunak etorri, klaseko zenbait lagun bilakatu ziren. Orduan, momentu egokia zela iragarri nuen eta goiz batean, pultsera txipaduna eraman nuen soinean. Pentsatu bezala, parkera iritsi bezain laster, atentzioa deitu zien pultsera moderno honek nire lagunei:

-Bai polita!-esan zidan Eneritzek.

-No he visto nunca horrelakorik-esan zuen Marcosek.

-Estatu Batuetatik ekarri nuen-erantzun nien.

-Claro! Hain modernoa...-komentatu zuen Aitorrek.

-Ba, pultsera honen barruan txipa dago eta txip hori programatzen baduzu, garunera bidaltzen dizu informazioa hizkuntza jakin bat hitz egiteko-esplikatu nien.

-Hala!-esan zuten denek batera harriturik.

-Pentsatu dut, agian zuek horrelako pultsera bat behar duzuela euskara behin betiko ikasteko. Pultsera honek duen alde ona da pultsera honek hizkuntza jakin bat hitz eginarazi egiten dizula eta horrekin batera ikasten dizula. Eta alde txarra, pultsera kendu arte ezin duzula beste hizkuntza bat hitz egin da. Nahi baduzue nahi duzuen koloretako pultsera oparitu diezazueket. Kolekzio osoa daukat eta gainera nire arrebak ere badauka bere kolekzioa eta batzuk eska diezazkioket.

-Yo no necesito halakorik-jaurti zuen Marcosek.

Eneritzi begiratu nion eta honek esan zidan:

-Ba, nik arrosa eramango nuke soinean... Probatzeagatik ez da ezer gertatzen eta gainera onuragarria bilakatuko zait klaseetarako.

Egun hartan, pultserak klaseko mintzagai bakarra bihurtu ziren eta arratsalderako eskaera ugari bildu nituen. Hurrengo egunean, koloreetako pultsera txipadun pila bat banatu nituen klasekoen artean. Pultseera txipadunak modan jartzea lortu nuen eta azkenean nire kurtsokoak ez ziren neska-mutilek ere eskatzen zizkidaten pultserak. Egun batetik bestera, institutuko giroa euskaldun bihurtu zen. Sinestezina zirudien. Nerabe guztiek hitz egiten zuten euskaraz. Pultserarik ez zutenek ere bai, lagunen batek pultsera eduki eta honek hizkuntza kutsatu balie bezala. Marcosek eta guzti eskatu zidan pultsera bat, hasieran ezkor aritu arren. Hasieran akats larriak eginez hitz egiten zuten baina pixkanaka-pixkanaka, maila hobetuz zihoazen. Ni oso eroso nengoen. Horrelakoa zen Euskal Herrira iritsi baino lehen imajinatu nuen giroa. Egun batean Eneritz eta Aitor nigana etorri eta harro-harro esan zidaten:

-Badakizu zer, Markel?

-Bota

-Pultseraren eraginik gabe arituko garela euskaraz hizketan zin egin dugu.

Eta eskumuturrak erakutsi zizkidaten.

-Begira, jada hasi gara gure promesa betetzen.

-Ez dakizue zenbat pozten naizen!-erantzun nien.

Pultserak, gauza guztiak bezala, modaz pasatu ziren eta jendea kenduz joan zen. Hala ere, euskarak nagusi izaten jarraitu zuen Alzako institutuan. Zer gertatu zen pultserekin? Ba seguraski, nerabeek beren lehengusu edota lehengusinei oparitu zizkieten eta euskararen eragina Euskal Herria osora hedatuko zen. Ni pozez asetuta nago nire lorpenekin. Azkenean Leire andereñoak arrazoia zeukan esanez ni (atzerritik etorritakoa) izango nintzela hemengoan hizkuntza bertakoei ikasgaraziko niena.

BIGARREN SARIA:

“NIRE AMONA”

Irati del Pozo

Andereñoak nire klasean galdetu zigunean ea zenbat anai- arrea ginen, askotan entzuten dut, 1, 2, 1, 2, ... eta oso kasu gutxitan, 3 entzuten dut. Baina ni, exzepzio bat naiz. Gu 5 anai-arrea gara. Ni helduena naiz eta Ixiar deitzen naiz.

Imajina dezakezuen nire ama eta nire aita beti lanean daude eta beti okupatuta dabilta. Eta batzuetan biek lan egin behar dute, gero gu handiak egitean, karrera bat ikasi ahal izateko, edo ondo elikatzeko eta gero gure urtebetetzea ailegaterakoan opari bat euki ahal izateko. Nire aitak beti goizez lan egiten du eta nire amak ere. Baina, nire amari batzuetan goizeko turnoa kentzen diote eta arratsalde z lan egitera joan behar da. Eta badakizue sekretu bat?

Niri asko gustatzen zaidala nire ama arratsalde z lan egiten duenean, zeren orduan nire ama nire amonaren etxera eramaten gaituen nire anai-arrea guztiok. Nire amonaren etxean, gauza harrigarriak gertatzen dira. Nire amonak Josefina du izena.

Beti kontatzen dizkigu gauza asko, bera txikia zenean gertatutakoak:

-Arratsaldeko bostak ailegatzten zirenean, gogoratzen naiz, auzoko bizilagun guztiak elkartzten ginela parkean. Denek beraien amek prestatutako meriendarekin ateratzen ginen kalera.

Meriendatzeko, suertea bageneukan, ogi zati bat bi txokolate zatiekin jartzen ziguten, edo bestela, ogi zati txiki bat mermelada pixka batekin. Gero, meriendatu ondoren, gure joku tradizionalak eta dibertigarriak jolasten hasten ginen.

Oso ondo pasatzen genuen. Lehenengo, txingora jolasten ginen. Tiza batekin kale guztia marrazten genuen laukitxoetan 1-12 zenbakiak, ondoren harri bat hartzen genuen kaleko lurretik eta denek fila handi batean jartzen ginen bata bestearen atzetik. Harri hori laukitxoetan sartu eta jolasten hasten ginen. Norbaitek irabazten zuenean guztiak batera airetik hartzen genuen eta bueltaka hasten ginen.

Mutilek beraiek kolore biziakin margotutako zibak dantzatzera jartzen zituzten. Kale erdian jartzen ziren. Jendea pasatzen bazen, batzuetan dirua botatzen zieten; lehiaketak ere antolatzen ziren: ea zein zibak iraungo zuen gehiago. Zortziak iristen zirenean, gure gurasoek deitzen ziguten afaltzeko, eta gu afaltzera joan aurretik soka saltoan aritzen ginen 15 minututan. Eta soka saltoarekin batera abestiak abesten genituen, hala nola: “nire etxeko patioa, auto lerea, suge indartsua.” Niri soka saltoan aritzea asko gustatzen zitzaidan.

Batez ere udan; zeren ona egiten bazuen kalean egoten ginen, bestela, etxean gelditu behar ginen irakurtzen.

-Amona... -galdetu nion nik-, negua bazen, zertara jolasten zineten?

-Begira Ixiar, nik, Begoña deituriko lagun bat neukan. Askotan bere etxera joaten ginen lagun guztiok, eta bere sukalde txikian, dendetara jolasten ginen. Mutilek ere noski.

Niri bere sukaldea asko gustatzen zitzaidan, beti bere etxera joaten ginenean, bere amak, sukaldeko pote batean zeuzkan gailetak banatzen zizkigulako. Bi gai-leta bakoitzarentzat. Oso onak zeuden!

Begoñaren etxean, kolorezko kromoetara jolasten ginen, tamaina eta forma desberdinekoak zeuden: handiak, txikiak, lodiak, argalak, kolorezkoak, txuri-beltzean, brillantinazkoak,...

Partida bakoitzean, 5 edo 10 kromo apostatzen genituen. Niri gehien gustatzen zitzaizkidan kromoak, brillantinazkoak ziren, eta beti gordetzen nituen.

Seguruenik, joku hau ez duzue inoiz entzun: taba jokoa. Taba ahariaren, ardiaren arra, hezur mota bat da. Lurretik bota behar da. Según eta nola erortzen den gauza bat edo beste bat da.

Niri, gehien gustatzen zitzaidana zen, taba, kolorez margotzea. Eta horretarako azkazalak margotzeko zeuden koloreak erabiltzen genituen taba margotzeko. Oso politak gelditzen ziren.

-Amona, egun batean taba jokura jolastu nahi dut. Nola margotzen diren erakustea nahi dut, zeren amatxok kolore mota askotako esmalteak dauzkan.

-Begira Ixiar, botilazko txapak badituzu, ekarri egun batean nire etxera eta erakutsiko dizut nola margotzen diren eta lehiaketak egingo ditugu bion artean.

-Ongi da amona, egun batean, nire klaseko lagunei erakutsiko diet, txingora nola jolasten den, kromoetara jolastuko dugu eta tabara, seguraski oso pozik eta alai jarriko direla.

-Bai, baietz Ixiar! Taba baten bat eskuratu ahal izango dizut.

Uda iristen denean, nire anai-arrebek eta ni joaten gara gure gurasoekin oporretara herri txiki batera. Herri honek, erreka dauka eta igeri egiten dugu. Txirringak eramaten ditugu eta mendira joaten gara. Denei, herrira joatea asko gustatzen zaigu, batez ere, egun guztia kalean ematen dugulako eta gauetan plazara jolastera ateratzen gara herriko ume guztiekin.

Nire amona ez dugu ikusten hiru hilabetez. Eskola hasten dugunean eta etxera bueltatzean nire amona ikusten dut. Oso pozik jartzen naiz: laister, badakit nire amona ikusiko dudalako.

Egun batean, kurtsoa hasi ondoren, nire ama berriz lanean hasi zen. Arratsaldez lan egin behar izan zuen eta nire anai-arrebak eta ni etxean gelditzen hasi ginen. Bizilagun bat etortzen hasi zen eta arratsalde guztietan gu zaindu egiten gintuen aita etorri arte.

Ni preokupatzen hasi nintzen.

Ama, lanetik etxera iritsi zen, ni altxatuta nengoen berari itxoiten. Galdetu egin nahi nion ea zergatik ez gindoazen lehen bezala amonaren etxera. Eta gainera denek nahi genuen amonaren etxera joan, hobeto pasatzen genuelako eta amonak gailetak ematen zizkigulako eta joko berriak erakusten zizkigulako.

Orduan, nire amak kontatu zidan, amona denbora luze zebilela gauzak ahazten eta oso jarrera bitxiak zituela. Kontatu egin zidan, egun batean kolore desberdineko bi oinetako jarri zituela. Beste egun batean fruitu-dendara joan zela ogia erostera, eta ahaztu egin zitzaiola non zeuden autobus geltokiak Donostiara joateko.

Orduan esplikatu zidan, batzuetan pertsona helduei, gauzak ahasten zitzaizkiela eta memoria galtzen zutela. Eta orduan ezin zirela bakarrik bizi.

Amak hau kontatu orduko, oso triste jarri nintzen eta pentsatu nuen orain, amona ikusi gabe geldituko ginela. Eta etxean arratsaldez geldituko ginela.

Hilabete batzuk pasa ondoren, amak maizago joaten zen amonaren etxera. Goi-zetan medikura eramaten zuten eta inoiz ez zioten uzten bakarrik. Beti norbaitekin joan behar zuen.

Arratsalde batean, familia guztia jaten ari ginela, nire amak esan zigun:

-Albiste berri bat kontatu behar dizuet.

Denok harriturik entzun genion.

-Bihar, norbait etortzen da gure etxera bizitzera. Familia handituko dugu. ¡AMONA GUREKIN BIZITZERA ETORRIKO DA!

Ezin nuen sinestu, pozik, garrasika hasi ginen eta bere logela prestatzen hasi ginen, amak ekarritako bere arroparekin eta panpinak jarri genizkion ohearen inguruan. Paper handi bat jarri genion atean itsatsita: "ONGIETORRI AMONA"

Hurrengo egunean klaseko txirrinak jo bezain laister korrika habiatu nintzen etxera, ea amona etxean bazegoen ikusteko. Eta nire sorpresa handiagoa bihurtu zen ikusi nuenean, nire logelan norbait egon zela eta mahaiaren gainean, kromo kaxa bat, bote bat txapekin, kolore desberdineko taba pare batzuk...

Eta nire barrutik esan nuen "ESKERRIK ASKO AMONA".

LEHENENGO SARIA:

“LAU HAIZETARA” ESKULTURA NAIZ

Iñigo Legorburu Arregi

Doinua: Leiho ertzetik ikus dezaket...

1

Mendizabal-tar Antton izanik
eskultore ezaguna
zu izan zinen bere garaian
nire sortzaile kuttuna.
Sortze lanetan eman zenidan
sekulako maitasuna
a ze erantzunkizuna
hartu zenuen laguna! (BIS)
Xeibrekeri haundi bat, hara
hemen aurrean duguna:
Oartzuarrak eman dit niri
sekulako oihartzuna! (BIS)

2

Altza euskaldun bat ikusteko
baldin badut ohorea
esperantzaren berdez jantziko
da erdoilen kolorea.
Nik hemen tente jarraituko dut
galtzen ez badut kordea
sasi arteko lorea
auzoan ongi gordea. (BIS)
Euskaldun-berriz betetze hori
izan arren dotorea
berriz euskaldun izate soila
ez ote dugu hobea? (BIS)

3

Beste auzoak badira hemen:
Gros, Aiete, Ibaeta...
Baina Altzaren afera honi
jarri nahi diot arreta.
Garai batean jasan zuenez
kolpeko eraldaketa
langilegoaren festa
kale guztiak beteta. (BIS)
Hargatik, Altzak badu berezko
altxor handi bat gordeta
euskararentzat langile asko
beharko ditugu eta. (BIS)

4

Astean zehar nik pentsatzeko
badaukadanez denbora
pentsamendu bat maiz sortu ohi zait
begiratzean albora.
Auzokideak beharrezko du
indarra eta ganora
zailtasun handien froga
Altzako aldapan gora... (BIS)
Altzatar orok uler dezake
hizkuntzaren metafora:
Gure_euskarari antzeko zerbait
gertatzen zaiolako da. (BIS)

5

Korrikakoak nire ondotik
pasa zirenez akaso
azken aldian horregatik dut
bihotzean poz bat jaso.
Txit hunkiturik, nire aurrean
euren begiradak lauso
ume edota guraso
guztiak niregana so! (BIS)
Geldirik egon ninteke baina
hori ez dugu arazo
gure_euskarak egiten badu
aurrerantza pausoz pauso. (BIS)

6

Leku honetan umeak ere
nola baditugun asko
hor inguruan ibiltzen dira
jolasean, saltoz-salto.
Erne guraso! Gomendio bat
eman nahi dizudalako:
Ez utzi ezer biharko
euskaraz hitz egin bapo! (BIS)
Gure hurrekin lan egitea
dugu guzti honen gako
etorkizuna orainalditik
landu behar dugulako. (BIS)

7

Gaztelania egina denez
gure herriaren jabe
honen aurrean nekez gelditu
gintezke ixilik, bare.
Euskara nola bihurtu dugun
historiaren zutabe
hizkuntza gure ondare
izanik, gu harro gaude! (BIS)
Nire jarrera erabat argi
gera dadila; bestalde
ni erdararen aurka ez nago
baizik euskararen alde. (BIS)

8

Bertan dabilzan historiaren
mintegikoak bezala
bizarraintarren lan eskergea da
niretzako mundiala;
bertsozaleen jarduna ere
ez da batere makala...
Euskaldunaren itzala
goraipatuz berehala! (BIS)
Ni sari gisa hartzen nauenak
gogotik ospa dezala
bere bi eskuz heldu ostean,
bihotzean har nazala!!! (BIS)

ALTZAKO ONENARI SARIA:

“BIZIA ETA BIDEA”

Xanti Zapirain Elizalde

Doinua: Habanera

1

Bidea ez da nekatzen
harria ez da pausoa,
bihotza ez da itzaltzen
odola baita beroa,
bizia da Herria ta
heriotza gure auzoa,
beldurak ezin du izan
Zorionen gurasoa.
Goazen pausoka kantari
bizitzen bide osoa,
bizia ez da gezurra
egia bada zintzoa,
arrazoia zer ote da
usoa edo otsoa?
ona al da gorputzarentzat
edaten ez den ardoa?

2

Bidea ez da gaixotzen
bizia ez da gizentzen,
gauero mozkortzen denez
heriotza ez da aspertzen,
alkoholak aspaldi daki
Zorion koskorra zer den
balantzaka hasi edo
erori han eta hemen.
Erortzen dena bizi da
baldin badaki altxatzen,
zutitzea zaila baita
ez baldin bagara ausartzen,
biziari eutsi behar zaio
zimurrak asko maitatzen,
esnatu orduko hasi
akats guztiak orrazten.

3

Bidea berez motza da
pausoak ez du luzatzen,
zergatik luzatu behar
bizia ez bada aldatzen?
heriotza hortxe dago
dena kolorez margotzen,
bidean ez da inor hil
bizia ez da bukatzen.
Horregatik maite behar da
ikasi dena gozatzen,
jakin behar da bidean
biziarekin dantzatzen,
goxo-goxo hurbilduta
musuka hasi laztantzen,
biziak ba omen daki
eskatu gabe ematen.

4

Biziak ez du izenik
lorea ez da emea,
bideak buru gutxi du
hauxe da ustekabea.
Biziak ez du bizi nahi
bere lana da ordea!
Zoriona hortxe dago
zurea eta nerea.
Zoriona ez da erosten
ez da opari merkea,
itxuraz ez da erraza
musuka eraikitzea,
lapurtu egingo dugu,
askoz hobe zatitzea,
erdibana disfrutatu
bizia ez da tristea!